

Gradu Amaierako Lana

Fisioterapia Gradua

FISIOTERAPIA PUBLIZITATEAREN ETA INTRUSISMO PROFESIONALAREN ARTEKO HARREMANA

Maddi Bengoetxea Erriondo

Egilea: Maddi Bengoetxea Erriondo

Zuzendaria: Alfonso Atela Bilbao

Fisioterapia Gradua, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

2021-2022

ESKERRAK

Hasteko eskerrak eman Alfonso Atela Bilbaori, nire tutore izateagatik eta eskainitako laguntza guztiagatik. Eskerrak eman ere Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoari, bereziki Severiano Setieni erraztutako informazio guztiagatik eta lan honetan hain lagungarri izateagatik. Eta azkenik, eskerrak eman karrera guztian zehar izandako irakasleei irakutsitako guztiagatik.

LABURPENA

Fisioterapia disfuntzio somatikoaren ondorioz afektatutako pertsonen edota osasun maila egoki bat mantendu nahi duten pertsonen baliabide fisikoaren erabilerari esker, sendatu, prebenitu, errehabilitatu eta moldatzea lortzen den metodo, aktuzio eta tekniken multzoari deritzo. Honen barnean, beste hainbat espezialitate edota modalitate daude, hala nola osteopatia, kiropaktika eta kiromasajea. 44/2003 legeak dioen bezala, ez dira osasun lanbide kontsideratzen eta beraz, hauen jardueren aurrera eramateko bestelako titulazio baten beharra nahitaezkoa da. Besteak beste esandako jardueren bat burutzen bada erregulatutako titulaziorik gabe, intrusismoa burutzen egongo litzateke. Ez hori bakarrik, gainera fisioterapia titulurik gabe osteopatia, kiropaktika edota horrelako jarduerak burutzen dituztenek publizitatea egiten dute, askotan administrazioak baimenduta. Lan honen helburua lege hutsuneak identifikatzea eta publizitate arloaren egoera aztertzea izan da. Horretarako inkestak bilatu, Euskadi mailako osasun publizitateak bilatu, Elkargoarekin kontaktuan jarri eta informazio orokorraren bilaketa egin da.

Hitz gakoak: fisioterapia, intrusismo profesionala, osasun publizitatea, osasun lanbideak, inkesta, delitua, sententziak, zigor-kodea, legedia

ESKEMA

1.SARRERA	1
2.JUSTIFIKAZIOA	7
3.HELBURUAK	7
3.1.NAGUSIAK	7
3.2.BIGARREN MAILAKO HELBURUAK	8
4.METODOLOGIA	8
4.1.EUSKADIKO PUBLIZITATEAREN BILAKETA	8
4.2.INFORMAZIO OROKORRAREN BILAKETA	8
4.3.CENDOJ BILAKETA	8
4.4.EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGOAREN LANA	9
5.BILAKETAREN EMAITZAK	9
5.1.LEGEDIA AZTERTZEN	9
5.1.1.PUBLIZITATEA	9
5.1.2.ZENTROEN ZABALERA	10
5.2.INFORMAZIO OROKORRA	11
5.3.CENDOJ BILAKETAREN EMAITZAK	12
5.4.EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGOAREN LANA	12
5.4.1.KATALUNIAKO INKESTA	13
5.4.2.EUSKADIN BURUTUTAKO INKESTA	14
6.EZTABAIDA	17
7.ONDORIOAK	18
8.BIBLIOGRAFIA	21
9. ERANSKINAK	24

1.SARRERA

Fisioterapiaren inguruko hainbat definizio topatzen ditugu. Espainiako Fisioterapeuten Asoziazioak (AEF) eta Munduko Fisioterapia Konfederazioak (W.C.P.T.) ondorengo definizioak erabiltzen dituzte: “*Fisioterapia disfuntzio somatikoen ondorioz afektatutako pertsoneri edota osasun maila egoki bat mantendu nahi duten pertsoneri baliabide fisikoen erabilerari esker, sendatu, prebenitu, errekuperatu eta moldatzea lortzen den metodo, aktuazio eta tekniken multzoari deritza*” (Fisioterapia Definición, s. f.). Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) aldiz, ondorengo dio: “*Elektrizitate, argi, masaje, ura, bero, hotz eta erabilera terapeutikoaren tratamenduaren artea eta zientzia. Gainera, fisioterapiak afektazio maila eta indar muskularra jakiteko frogak elektriko eta manualak burutzen ditu; gaitasun funtzionalak, mugimendu artikularraren anplitudea eta bizigaitasunaren neurriak zehazten dituzten frogak, baita eboluzioaren kontrolerako laguntza diagnostikoak ere*”. (Fisioterapia Definición, s. f.)

Fisioterapia lanbidean arazo nabari bat dagoela ikusi da, intrusismo profesionala. Intrusismoa, “*Real Academia Española*”-k dioen bezala, “*Baimenik gabe aktibitate profesionalak burutzen dituen pertsona. Delitua kontsidera daiteke.*” (intrusismo | Diccionario de la lengua española, s. f.) Gainera, Espainiako 403 zigor-kodean zigortuta dagoen delitua da: “*Indarrean dagoen legegintzan onartutako titulazio akademikorik ez duen eta lanbide horretako ekintzak burutzen dituenak, 12-24 hilabeteko multa zigorra jasoko du. Egiten ari den aktibitate profesionala burutzeko gaitasuna egiaztatu behar denean edota aktibitate hori legalki onartu behar denean, titulu hori ez edukitzekotan, 6-12 hilabeteko multa zigorra jarriko da*”. Multa zigorraz gain, 6 hilabetetatik 2 urte arterako kartzela zigorra ezar daiteke ondorengo kasuetan: (Artículo 403 del Código Penal – Conceptos Jurídicos, s. f.)

“*1-Errudunak, aurretik aipatutakoaz gain, publikoki, aipatutako titulua esleitzen badu.*”

“*2-Errudunak aurretik aipatutako aktibitateak lokal edo publikora irekitako establezimendu batean burutzen baditu eta lanbide horretako zerbitzuak eskaintzen direla iragartzen badu.*”

Intrusismo honek populazio guztiari eragiten dio. Alde batetik, fisioterapeutei. Baina, beste alde batetik pazientei ere era kaltegarri batean eragiten diete. Fisioterapeuten lana

burutzen dute hauen ikasketa mailarik gabe eta pazienteei kaltea eragiteko probabilitatea handiagoa izango dute; segurtasun maila baxuagoa izanez. 44/2003 legeak dioen bezala, profesional sanitario guztiek aseguruia eduki behar dute, baina osasun profesional titulaziorik ez badago, ez dira aseguraturuta egongo, beraz edozein arazoren aurrean pazientea galduta dagoela esan daiteke. (Ley 44/2003, de 21 de noviembre, de ordenación de las profesiones sanitarias, 2003, 7)

Arazo hau nahiko zabala dela esan genezake, intrusismo hori titulazio desberdin askoren izenpean burutzen delako, baina gehien errepikatzen direnak ondorengoak dira: osteopatia, kiromasajista edota kiropraktikoa. Horregatik beharrezkoa da ondorengo 3 kontzeptuak azaltzea eta hauen lana argi uztea:

1. Espainiako Osteopaten Erakundearen Elkargoaren (OCOE) hitzetan: *“Osteopatiak gorputzeko funtzioak eta estruktura zuzenki lotuta eta integratuta daudela dio, eta gainera pertsona baten ongizatea estruktura neurologiko, muskuloeskeletiko eta erraietako funtzioen orekan oinarrituta dagoela dio. Prebentzio, kontserbazio eta osasunaren hobekuntza lortzeko gorputzeko sistema desberdinen (artikulazio, muskulu, lotailu, zirkulazio, ehun konjuntiboa eta erraiak) oreka berreskuratzeko helburuarekin burutzen den abordatze manulean datza”*. Baina hauek dioten bezala, Espainia mailan (beste herrialde batzuetan onartuta dago) osteopatak ez dira osasun profesional kontsideratzen. (La osteopatía en España - OCOE, s. f.)
2. Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) kiropraktika horrela definitzen du: *“Sistema neuromuskuloeskeletikoaren nahasmendu mekanikoen diagnostikoaz, tratamenduaz eta prebentzioaz, hala nola, nahasmendu horrek sortutako efektuek osasunean izan ditzaken eraginaz arduratzen den osasun lanbidea.”* (¿Qué es la quiropráctica? | Definición y beneficios | ARS Quiropráctica, s. f.). Nahiz eta definizio honetan osasun lanbide bezala definitu, oso argi utzi behar da, Espainiako Kiropraktikoen Asoziazioak (AEQ) dioen bezala, kiropraktika Espainia mailan ez dagoela osasun lanbide bezala onartuta, beraz, kiropraktikoaren lana burutu ahal izateko, beste osasun titulazio bat behar da: mediku, fisioterapeuta...(Asociación Española de Quiropráctica - La quiropráctica en el mundo, s. f.)
3. Kiromasajea Vicente Lino Ferrándiz Garcíak (1893-1981) asmatutako terminoa da: *“Pazientea gaitz desberdinez tratatzeko eta askotan beste terapia*

alternatiboekin batera erabiltzen den (askotan ebidentzia zientifikorik gabekoak, akupuntura, aromaterapia, homeopatia...) eskuekin burututako tekniken multzoari deritzo.” (Saiz, 2013)

Bakoitzaren definizioa azalduta eta behin argi utzita, azpimarratu nahi dut Espainia mailan 44/2003-ko legearen 2.artikuluan agertzen den bezala, aurretik aipatutako hiru kasuak ez direla osasun lanbide kontsideratzen, beraz, beraien lana legearen pean burutu ahal izateko, Espainian onartutako beste titulazio bat eskuratu beharko dute. 44/2003 legean onartzen diren osasun lanbideak ondorengoak dira: ((Ley 44/2003, de 21 de noviembre, de ordenación de las profesiones sanitarias, 2003, 7)

1. Lizentziadun mailan: Medikuntzan, Farmazian, Odontologian eta Albaitaritzan lizentziatuak.
2. Diplomadun mailan: Erizaintza; Terapia Okupazionala; Podologia,; Optika eta Optometria; Giza Nutrizioa eta Dietetika; Logopedia eta Fisioterapia.

Espainia mailako intrusismo arazoa aztertzeke, CENDOJ-en bilaketa egin ondoren, azkeneko 5 urtetako kasuak pilatu eta gero, fisioterapia eta intrusismo profesionala burutzen duten 13 epaiketa bakarrik topatu dira. Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoarekin hitz egin eta gero, argi utzi dute epaiketa eskas horiek ez direla intrusismo ezaren ondorioz, baizik eta intrusismoa burutzen duena epaiketara eramateko zailtasunen ondorioz. Arazoa salatzeke aurretik froga minimo batzuk eduki behar dira eta horiek lortzea ez da batere erraza, horregatik kasu asko ez dira epaiketetara iristen. Gainera, azkeneko 5 urtetako kasuak aztertzen baditugu, 13 kasu horietatik 9 libre atera ziren (%69,2a) eta 4 bakarrik izan ziren kondenatutakoak (%30,76). Datuekin jarraitzeke, kondenatutako 4 kasu horietatik 3k intrusismoaz gain beste delitu bat burutu zuten, besteak beste sexu delitua. Bai kondenatutako kasuak, baita libre ateratako kasuak aztertzean, ikusi da kasu guztietan epaiketa burutzerako hainbat urte pasa izaten direla eta bitarteko urte horietan, kasu gehienetan intrusoak bere lanarekin jarraitzen duela. Datu guzti hauekin ondorengo arazoak identifika daitezke: (Consejo General del Poder Judicial: Buscador de contenidos, s. f.)

- Intrusismoaren inguruko epaiketa gutxi burutzen dira, besteak beste denuntzia jartzeko beharrezko frogak lortzeko zailtasunengatik.
- Epaiketa burututa kondenatutakoen portzentaia oso baxua da eta gainera kondenatutako kasuetan beste delitu batekin batera burutzen da intrusismo delitua,

beraz, intrusismoa bakarrik burutzen den kasuetan zailagoa izaten da epaiketan kondenatuta ateratzea.

- Epaiketa aurrera eramaten den arte urte asko igarotzen dira eta urte horietan zehar delitua burutzen jarraitu ahal izango da..
- Epaiketa guztietan salatzailea lurralde horretako Fisioterapeuten Elkargoa izaten da, administrazioaren partetik ez da salaketarik ipintzen.

Osasun zentroa irekitzeko beharrezkoak araupetzen dituen legea RD 1277/2003 da. Bertan azaltzen duen bezala, autonomia erkidegoko osasun autoritateek baimenduko dute (arauak betetzen direla ziurtatu eta gero) osasun zentroen instalazioa, funtzionamendua, modifikazioa eta itxiera: (Real Decreto 1277/2003, de 10 de octubre, por el que se establecen las bases generales sobre autorización de centros, servicios y establecimientos sanitarios, 2003, 4-8)

- Funtzionamenduaren osasun baimenak, osasun zentroetako aktibitatea aurrera eramatea baimentzen du. Baimen hau, zentro bakoitzari eta zentro bakoitzeko zerbitzu bakoitzari eman beharko zaio eta gainera, denbora bat pasata BERRITU egin beharko da.
- Modifikaziorako osasun baimenari dagokionean, zentroek egituran, titulartasunean eta eskaintza asistentzian aldaketak egiteko baimena izango dute.

Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduek hainbat baldintza bete beharko dituzte: baimena emateko baldintza minimoak (aktibitatea garatzeko beharrezko baliabideak daudela ziurtatu) Errege Dekretuak zehaztuko ditu. Dekretu honen amaierako U.59 eranskinean, eskaintza asistentziala kasu guztiak pilatzen dira eta bertan dago fisioterapia, baina ez da inon topatzen ez osteopatia, kiropraktika, kiromasajista edo horrelakorik; osasun lanbide ez direnaren seinale argia. Gainera, baldintza minimo hauek autonomia bakoitzeko administrazioak osatu ahal izango ditu. Zentro hauek erraz identifikatu ahal izateko, ikusgai den gune batean autorizatuta daudenaren bereizgarri bat eduki beharko dute. Hortaz gain, autorizatutako erakundeek soilik erabili ahal izanago dituzte osasunarekin erlazionatutako edozein hitz publikitatean, erregistro zenbakia agerian agertzen dela ziurtatu eta gero, noski. Azkenik, dekretu honekin amaitzeko aipatu beharra dago aurretik esandako guztia betetzen ez den kasuetarako ez dela zigorrik zehazten. (Real Decreto 1277/2003, de 10 de octubre, por el que se establecen las bases generales sobre autorización de centros, servicios y establecimientos sanitarios, 2003, 4-8)

Intrusismoa modu askotan betetzen da eta modu horietako bat publizitatea da. Intrusismoa burutzen duten pertsona horiek publizitatea erabiltzen dute pazienteak haien kontsulta edota zentrora erakartzeko. Hau oso arriskutsua izan daiteke pertsonak engainatzea oso erraza izaten delako. Honen inguruan inongo ideiarik ez duen pertsona batek, kartel batean adibidez, osteopatia zentro bat ikusten badu, non terapia desberdinak burutzen direla azaltzen duen eta haien mina kenduko dituela ziurtatzen duen, ez du imajinatuko benetan ez dela osasun profesionala. Hori dela eta, pazienteek askotan osasun profesionalak ez diren kontsulta desberdinetara jotzen dute publizitatearen kontrol egokia burutzen ez delako. Honek guztiak ondorio larriak ekar ditzake osasun profesionala ez denez, pazientearen osasuna bermatuta ez dagoelako.

Hala ere, nahiz eta publizitate arloari dagokionean nahiko kontrol eskasa egon, bere berezko legedia du, 34/1988 legea. Legea azaldu baino lehen, publizitatearen definizioa zehaztea beharrezkoa da: “Pertsona fisiko/juridiko, publiko/pribatuk, aktibitate komertzial, industrial, artisau edota profesionalean burututako edozein komunikazio forma. Forma zuzen edo ez-zuzen baten bidez ondasunak, zerbitzu, eskubide eta betebeharrak sustatzeko helburuarekin.”. Lege honek debekatutako publizitate orokorra ere zehazten du: (Ley 34/1988, de 11 de noviembre, General de Publicidad, 1988, 4-6)

- Publizitate subliminala.
- Produktu, ondasun, zerbitzu edota aktibitate zehatzak erregulatzen dituzten arauak betetzen ez direnean.
- Publizitate desleiala, agresiboa eta engainagarria.

Material eta produktu sanitarioek arau bereziak bete behar dituztenez, 550/1991 dekretuak araupetuko du Euskal Herriko osasunbide publizitatea. Bertan esaten den bezala, publizitate mediku-sanitarioa, baita hauekin zerikusia duten antolaketa eta administrazioa, autonomia erkidegoari dagokio. Publizitatea ondo egiten dela ziurtatzeko, erregulatuta dagoen prozesua bete behar da baimena lortzeko, esandako baimenik gabe ezin izango da osasun publizitaterik burutu. Prozesu hau betetzen dela ziurtatzeko Osasunbide Publizitatearen Kontrolerako Batzordea dago. Lege honen barruan hainbat artikulu edo arau azpimarratu nahiko nituzke:

- Euskal autonomia erkidegoan egin nahi den osasun publizitate guztiak aurretiko administrazio baimena, kontrola eta zaintza beharko ditu.

- Osasun publizitate bezala ulertuko da 34/1988 legean aipatzen dena, baita giza osasunean eragin positibo edo negatibo duen edozein aktibitate.
- Batzordeak publizitatearen egiazkotasuna ziurtatzeko, nahi diren egiaztapenak burutu ahal izango ditu.
- Baimena eskatu eta 2 hilabete pasata, baieztapena jakinarazi ez bada, EMANDAKOTZAT (baietza) ulertuko da administrazio isiltasun positiboa dela eta.
- Baieztapenek 3 urteko balioa izango dute eta epe hau igarotzean berriztapena eskatu ahal izango dute.
- Dekretu honetan onartutako publizitate guztiek osasun publizitatearen erregistro zenbakia agerian azaldu beharko dute.
- Osasun publizitatea aurretiko administrazio baimenik gabe burutzen bada edota ez baditu arauak betetzen, publizitate jarduera etetea ekar dezake okerrak zuzendu arte edota eskatutako betebeharrak zuzendu arte.
- Arau haustek zigor administratiboa dakar, ez zigor zibil edota penalik.

Espania mailan, osasun publizitatea nahiko era desegokian burutzen dela ikusi denez eta honen erabilera argi ez dagoenez, lan hau burutzen ari zen bitartean, apirilaren 28an, Espainiako Kongresuan publizitatea erregulatzeko eta honen erabilera egokiago bat burutzeko lege berri baten agerpenaren inguruan eztabaidatu zuten, baina azkenean atzera bota zuten. (El Congreso rechaza la ley de publicidad sanitaria del PP, 2022)

Sarrerarekin bukatzeko, aipatu beharra dago lanarekin hasi eta hilabete gutxi batzuk igaro ondoren, ebazpen oso garrantzitsu bat agertu zela intrusismoa kondenatzeko orduan eragin handia izan dezakeena; “Body” kasua. Epaiketa edota denuntziaren analisi laburra: Profesional sanitarioa ez den eta “Body” izeneko zentro bat duen pertsona batez datza. Honek, osteopatia, kiropraxia, kiromasajea eta medikuntza alternatiboa burutzen duela dio. Euskadin, zentro ez sanitarioa dela esatearekin, ez dute zentroa zabaltzeko baimenik eskatu behar, ez dute profesional sanitario baten beharrik, ez dute erantzukizun zibileko segururik behar... Murtziako osasun administrazioak (aurretik esandako aktibitateen publizitatea egiten zuela ikusita) osteopatia, kiropraktika eta kiromasajea fisioterapiaren espezialitate direla argi izan zuen eta kontrolerako bide hoberena 1277/2003 Errege Dekretuan zehazten den bezala, osasun zentroa irekitzeko baimena eskatzea izan zen (Real Decreto 1277/2003, de 10 de octubre, por el que se establecen las bases generales sobre autorización de centros, servicios y establecimientos sanitarios, 2003, 4-8). Dekretu

horretan zehazten diren baldintzak betetzen ez zirenez, zentroa itxi behar zuela esan zioten. Zentroaren jabeak, Justizia Auzitegi Nagusira jo zuen, baina honek administrazioaren erabakia baieztatu zuen. Kasazio-errekurtsoa ipini eta gero, arazoa Auzitegi Gorenera iritsi zen eta honek aurrekoa berretsi zuen. Auzitegi Gorenak aipatutako hainbat puntu azpimarratu nahiko nituzke intrusismoari aurre egiteko oso garrantzitsuak izan daitezkeela iruditzen zaidalako:

- Osteopatia, kiropraxia eta kiromasajearen publizitatea dagoela aipatzen du eta hiru hauek fisioterapiak barne hartzen dituen metodo edo teknikak direla zehazten du, hau da, fisioterapiaren espezialitate direla.
- Akupunturari eta terapia ez-konbentzionalei dagokionean sintoma jakin batzuen tratamendurako helburu prebentibo, sendagarri edota paliatiboarekin burutzen diren aktibitateak, sanitariotzat hartu behar dira.
- Mediku edota fisioterapeutarik gabe, ez dago inongo bermerik hiritarren segurtasuna ziurtatzeko. Gainera, osasun zentro bat dela azpimarratzen du osasunarekin erlazio zuzena duelako eta teknika desberdinak aplikatzen direlako sendatzeko edota mina gutxitzeko helburuarekin.

2.JUSTIFIKAZIOA

Intrusismoa lanbide honetako pertsona ia guztiek ezagutzen duten arazoa izan arren, honen ondorio, legedi eta eragina gutxi batzuk bakarrik ezagutzen dute. Beraz, honen inguruko lana, fisioterapia lanbidean dagoen arazo larrienetariko aztertze eta honen inguruko informazioa eskuratzeko helburuarekin burutu da. Baina batez ere, zentroek burutzen duten intrusismoaz gain, publizitate arloa eta honek duen eragina oso gutxi aztertu denez, helburu nagusia honek intrusismoan duen eragina sakonago aztertzea izan da.

3.HELBURUAK

3.1.NAGUSIAK

- Publizitate arloari dagokionean eta zentroak irekitzerako orduan administrazio aldetik nahikoa egiten den edo ez ikustea (arazoari aurre egiteko dauden baliabideak identifikatu).
- Lege-hutsuneak identifikatzea.

- Arazoa zein den ikusita, aurre egiteko dauden baliabideak ikusita eta lege-hutsune horiek identifikatuta, soluzioak bilatzea.
- “BODY” kasuak izan dezakeen eragina eta garrantzia aztertzea.

3.2.BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Ikusi ea jendea (fisioterapeutak batez ere) arazo honen aurrean jakinaren gainean dagoen eta ea legedia ezagutzen duen.
- Intrusismoak eragin ditzaken kalteak ikusi → bai fisioterapeutetan baita pazienteetan ere.

4.METODOLOGIA

4.1.EUSKADIKO PUBLIZITATEAREN BILAKETA

Alde batetik, interneten Euskadiko fisioterapia kontsulta desberdinak bilatu ziren publizitate egokia egiten duten edo ez ikusteko. Beste alde batetik, kaletik aurkitutako fisioterapia/osteopatia/kiropraktika/kiromasaje zentro guztiei argazkia atera zitzaizen Euskadin Osasun Publizitate egokia burutzeko beharrezkoak agertzen diren edo ez ikusteko. (3 Eranskina)

4.2.INFORMAZIO OROKORRAREN BILAKETA

Informazioaren bilaketarekin hasteko, lehendabizi, interneten Espainiako asoziazio eta Elkargo desberdinetan agertzen zen informazioa pilatu zen. Bertan agertzen ziren notiziak, kanpainak, definizioak... Bilaketa hau egitean, elkargo gehienek intrusismoaren aurkako kanpainaren bat zutela ikusi zen eta hau arazoaren larritasunaren adierazgarri da. Gainera, Espainiako Fisioterapeuten Elkargoaren Kontseilu Orokorraren web-orrian informazioa bilatzean, oso erabilgarria izan zezakeen intrusismoaren aurkako dekalogo bat topatu zen (Consejo General de Colegios de Fisioterapeutas de España, s. f.). Amaitzeko intrusismoaren inguruko inkestak bilatzen saiatu zen, baina ez zen horrelakorik topatu.

4.3.CENDOJ BILAKETA

Espainia mailan egondako kasuak aztertzeko eta kasu horietako zigorrak aztertzeko CENDOJ (Dokumentazio Judizialaren Zentroa) web-orria erabili zen. Behin sartutakoan, “*intrusismo profesional y fisioterapia*” hitz klabeak erabili ziren honen inguruko epaiketak agertzeko eta bilaketa egiterakoan 52 epaiketa atera ziren. Bilaketa oso

orokorra zenez eta azkenengo urteetako kasuak lortu nahi zirenez, bilaketa “urte” filtroa erabiliz 2017-tik gaur egunera arte murriztu zen (6 urte gutxi gorabehera). Filtro hau aplikatutakoan 25 kasuetara murriztu ziren epaiketak. Hauek banan-banan analizatzen hasterakoan, konturatu nintzen denak ez zirela fisioterapian egindako intrusismoaren inguruko epaiketak, kasu batzuetan beste osasun lanbideetako intrusismoa burutzearen ondoriozko epaiketak baitziren. Beraz, bilaketa filtratuta eta epaiketa bakoitza analizatu ondoren guztira balio zuten 13 epaiketa topatu ziren (Consejo General del Poder Judicial: Buscador de contenidos, s. f.).

4.4.EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGOAREN LANA

Informazio bilaketarekin amaitzeko, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoko lege-aholkularitzaren ordezkariarekin kontaktatu zen. Alde batetik, elkargoaren lanaren inguruko informazioa eskuratu zen, besteak beste Publizitatearen Kontrolerako Batzordearen parte direlako (elkargora iritsi berri zitzaien denuntzia baten erantzun bat erakutsi, eta horren aurrean beraiek egindakoa azaldu zuten). Beste alde batetik, Katalunian egindako inkesta bat lortu zen (ezin izan zen lehenagotik lortu Interneten elkargokidearen zenbakia eskatzen zuelako) (**1 Eranskina**), baita lehengo urtean EHU-ko ikasle ohiak egindako beste inkesta bat ere. (**2 Eranskina**)

5.BILAKETAREN EMAITZAK

5..1.LEGEDIA AZTERTZEN

5.1.1.PUBLIZITATEA

Publizitateari dagokionean, honen erabilera desegokia etengabe egiten dela ikusi da. Epaitutako zentro guztiez gain, publizitate engainagarria egiten duten beste kasu asko daude, baina hauek ez dira epaiketetara iristen. Hau da, elkargoetatik zentro batek publizitate desegokia egiten duela ikusterakoan lehenengo pausua fax baten bidez zentroarekin kontaktuan jartzea izaten da. Publizitatean egia ez den zerbait edota desegokia den zerbait agertzen bada, aldatzearekin nahikoa izaten da, horren ondorioz arazoa ez da epaiketa batera iristen. Nahiz eta legeak dioen bezala publizitate okerrak ondorioak izan, gero errealitatea oso desberdina da, ez delako inoiz zigortzen.

Publizitate engainagarria egitearen adibide garbi bat Espainiako Kiropraktikoen Asoziazioaren web-orrian ikusi daiteke. Kiropraktikaren definizioa aipatzerakoan agertzen den lehenengo esaldia ondorengoa da: “*Kiropraktika lehenengo kontaktuko*

OSASUN LANBIDEA da...”. Hau ez da egia, Espainia mailan ez behintzat, beraz, hau publizitate engainagarria izango litzateke. (Asociación Española de Quiropráctica - La quiropráctica en el mundo, s. f.)

Publizitatearekin amaitzeko, epaiketak aztertzerakoan eta Elkargoarekin hitz egiterakoan, oso argi ikusi da publizitatea era oker batean burutzeak ez dakarrela inolako ondoriozik. “CENDOJ”-en bilaketak egiterakoan, ez zitzaidan publizitate desegokiaren ondoriozko epaiketarik atera, beraz, horrek esan nahi du ez direla epaiketetara iristen. Denuntziak edo abisuak, elkargo bakoitzak ipintzen ditu. Zentroarekin kontaktuan jartzen dira publizitate desegokia egiten ari direla esateko eta publizitatean gaizki dagoena aldatzea eskatzeko. Normalean, zentro horietako kideek berehala kentzen dute gaizki dagoena, horrela arazoa bertan geratzen delako.

Euskadiko Osasun Publizitatearen bilaketa egiterakoan, kasu guztietan ikusten da ez dela legeak dioena betetzen (**3 Eranskina**). Ez da inon agertzen osasun publizitatea egiten ari direnaren erregistro zenbakia. Hau ikusita 2 arazo identifikatzen dira:

- Legeak dioena ez da betetzen.
- Ez da ezer egiten osasun publizitate desegokiari aurre egiteko.



5.1.2.ZENTROEN ZABALERA

Zentroaren zabalerari dagokionean arazo bat dagoela identifika genezake. 2 modu desberdinetara burutzen dute intrusismoa:

1. Osasun profesionalak ez direnez, ez dute inolako baimenik eskatu behar zentroa irekitzeko garaian. Baina, behin zentroa irekitzerakoan, osasun lanbideei dagokien ekintzak burutzen dituzte. Hau frogatzea zailagoa izaten da.

2. Osasun profesional bezala identifikatzen dira, Espainian baliagarria den inolako titulurik izan gabe. Hemen arazoa administrazioan dagoela esan genezake, zentroa irekitzeko baimena eskuratu dutelako baliagarria den titulaziorik eduki gabe.

5.2. INFORMAZIO OROKORRA

Interneten bilaketa orokorra egiterakoan, intrusismoaren inguruko zenbat informazio zegoen jakin nahi nuen. Topatu nuen lehenengo gauza “Intrusismoari Aurre Egiteko Dekalogoia” izan zen. Dekalogoia oso egokia iruditu zitzaidan arazoaren puntu guztiak biltzen dituelako: administrazioa, komunikabideak, osasun profesionalak, elkargoak, iritzi publikoa eta fisioterapeutak.

Bilaketarekin jarraituta, Elkargo desberdinek egindako kanpainak agertu zitzaizkidan. Autonomia Erkidego guztietako Elkargoek kanpainak burutu dituzten edo ez jakiteko, banan-banan bilatu nituen. Bilaketa honekin ikusi nuena da, elkargo guztiek egin izan dituztela kanpainak momenturen batean, beraz, hori arazoaren adierazgarri izan daiteke. Hau da, elkargo guztiek egin badituzte kanpainak, intrusismoa arazo nahiko nabarmena dela esan nahiko du.

Informazio orokorraren bilaketarekin amaitzeko, 2014ean sortutako asoziazio bat topatu nuen: Fisioterapia, Osteopatia eta Kiropraktikaren Ondorioz Kaltetutakoak (AFOQ). Web-orrian honela definitzen dute beraien lana: “*Lanbidean intrusismoaren ondorioz kaltetutako edo Fisioterapia/Osteopatia/Kiropraktika espezialitateetan praxi txar baten ondorioz kaltetutako pertsonen babeserako sortu da asoziazioa; Espainia mailan zeregin sozial hau burutzen duten asoziazio bakarra izanik.*” (Objetivos, s. f.). Haien asoziazioa irakurrita, korreo bidez kontaktuan jarri nintzen hainbat galdera egiteko helburuarekin (haien lana zehatz-mehatz azaltzeko, jaso dituzten kasuak aipatzeko, intrusismoaren inguruko haien iritzia jakiteko...), baina ez nuen erantzunik jaso. Hala ere asoziazioa interneten bilatzerakoan, bertako lehendakariari, Marisol Garciari, 2020-ko otsailean egindako elkarrizketa bat topatu nuen eta bertan aipatutako hainbat puntu azpimarratu nahiko nituzke: (“*El intrusismo profesional en Fisioterapia es un problema de salud*”, s. f.)

- Asoziazioaren helburuak: intrusismoa eta praxi desegokia jazartzea eta kaltetutakoei laguntzea.
- Ematen duen baino intrusismo gehiago dago.

- Intrusismoaren ondoriozko kaltetu asko iristen dira haien asoziaziora. Manipulazio baten ondorioz gorra geratu zen paziente baten adibidea jartzen du.
- Jendea informatu beharra dago intrusismoa osasun arazo bat delako. Honen ondoriozko kasu hain dramatikoak ezagutuko balira, agian jendeak kontu handiagoa izango luke.

Asoziazio honekin argi ikusten da, berriro ere, intrusismoa oso larria den arazo bat dela eta honen ondorioz kaltetuta ateratzen diren pertsona asko daudela.

5.3.CENDOJ BILAKETAREN EMAITZAK

